

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 12an

Hezkuntza Sailak, Euskal Unibertsitate Sistema (EUS) osatzen duten unibertsitateek (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak 2020ko apirilaren 7an, pandemia betean, COVIDek eragindako osasun-larrialdiko egoerari erantzuna emango zioten lehentasunezko akordioetara iristeko zeregina ezarri genion geure buruari.

Urtebeteko ahaleginen ondoren, oraindik ere Osasun-egoera konplexua izanik hezkuntza-, ikerketa- eta ezagutzaren transferentzia-eginkizun hirukoitza garatzeko, balantzea egin nahi dugu ezarritako helburuei buruz, pandemian zehar egin dugun lanaz, bai eta EUS-k epe labur zein ertainean dituen etorkizuneko helburuei buruz ere:

- I. 2020ko apirilaren 7ko baterako adierazpenean hartutako konpromiso nagusiak osorik bete dira. Egindako ahalegin kolektiboari eta 2019-2020 ikasturtea amaitzeko aurreikusitako emaitzei buruzko balorazio bateratua oso positiboa da, egoera kontuan hartuta. Uste dugu gairitu egin ditugula, modu koordinatuan lan eginez, espero gabe iritsi zitzaigun krisi handi baten ondorio nagusiak.
- II. Funtsezkoa izan da unibertsitate-komunitate osoak, salbuespenik gabe, egin duten lana eta egokitze-ahalegina: ikasleek, irakasle eta ikertzaileek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, arduradun instituzional eta akademikoek eta unibertsitatearen hiru misioetan –prestakuntza, ikerketa eta transferentzia- parte hartzen duten gainerako eragileek egindako lana.
- III. Prestakuntza presentzialaren ereduan eta unibertsitateen digitalizazio-prozesuak finkatzeko egindako baterako ahalegina, Hezkuntza Sailaren bultzadaren bidez, euskal unibertsitate-prestakuntzaren oraindirako eta etorkizunerako palanka garrantzitsu bihurtu da. Helburu horretarako, ezohiko moduan, 3.934.120 € bideratu dira 2020an.
- IV. Enpresa-agenteekin, enpresekin eta beste entitate batzuekin izan den lankidetzaren egokituak bermatu du unibertsitate-prestakuntza dualaren ikaskuntza-emaitza nagusiak

lortzea. 2020-2021 ikasturtean 10.819 kanpo-praktika eta unibertsitate-prestakuntza dualeko 915 egonaldi egin dira.

- V. Hezkuntza-eragileekin eta osasun-eragileekin egindako lankidetzak egokituak bermatu du, bi arlo horietan prestakuntza praktikoaren ikaskuntza-erakunde nagusiak lortzea. 2020-2021 ikasturtean 5.187 *practicum* burutu dira Hezkuntza graduatan, eta 1.671 praktika kliniko gauzatu dira.
- VI. Beste herrialde batzuetako unibertsitateekin –Europakoak batez ere– izan den lankidetzak egokituari esker, nazioarteko mugikortasun programen zati bati eutsi ahal izan zaie, pertsonen segurtasuna bermatuz. Hala, 2020-2021 ikasturtean 2.230 ikasle hartu dute parte mugikortasun programetan.
- VII. 2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren Planaren egitura berriak aukera eman du sortutako egoerara egokitutako ikuspegia txertatzeko, adostutako helburu estrategikoak betetzen direla bermatuz. Horretarako, 2020an ekintzak egokitu egin dira, ekitaldi horren gauzatzea hertsiki monitorizatu da eta 2021erako jarduketaren planak definitu dira Planaren Jarraipen Batzordeetan.
- VIII. 2020-2021 ikasturtean Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateetan COVID osasun-egoerara egokitutako presentzialtasunari esker, pandemiak iraun bitartean, prestakuntzaren, kalitatearen eta pertsonen segurtasunari loturiko erronka nagusiei heldu ahal izan zaie. Prestakuntza-erakunde osorik mantendu da, eta kasu positiboak detektatzeari dagokionez, 2020-2021 ikasturtea hasi zenetik gaur arte 2.580 kasu positibo erregistratu dira (2.400 ikasleen artean eta 340 langileen artean). Horrek asteko 80 kasu positiboko batez bestekoa esan nahi du, 74.050 pertsonak osatzen duten kolektiboan (64.341 ikasle eta 9.709 langile). Nabarmenezkoa da, halaber, ezarri diren protokolo zorrotzei eta unibertsitate-komunitate guztiaren ardurari esker, ia ez dela kutsatzerik gertatu campusetako jardueran akademikoan.
- IX. Hezkuntza Saila, EUS-ko unibertsitateak eta Unibasq modu estuan eta koordinatuan ari dira lanean gai akademikoetan, duela urtebete abian jarritako Euskal Unibertsitate Sistemako Lantaldearen bidez, eta horri esker, Euskal Unibertsitate Sistemak irakaskuntzako eta egiaztapeneko ezaugarri eta eredu sendoak ditu, azken urte honetan izandakoa bezalako egoera kritikoen aurrean.

- X. Egokitutako presentzialtasunak jarraituko du izaten datozen hilabeteetan ere unibertsitateetako prestakuntzaren ardatz, 2020-2021 ikasturtearen amaierara begira, gure unibertsitate-ekosistema osatzen dugun eragileen arteko koordinazioaren baitan.
- XI. 2021-2022 ikasturte berria planifikatzeko erronka daukagu, digitalizazio-prozesuan aurrera egiteak eta elkarlanaren beharrak markatutako testuinguruan, bai eta osasun-testuinguruari buruzko ziurtasun handiagoaren beharra ere. Adierazpen honen datan ahaleginak koordinatzen jarraitzea eskatzen du osasun-egoerak.

Horregatik, Hezkuntza Saila, EUS osatzen duten hiru unibertsitateak eta EUSen Kalitate Agentzia den Unibasq, honako lehentasun hauetan zentratuko dira epe labur eta ertainean:

- I. **Osasun-krisiari eta pertsoneri arreta** ematea, dagokigun testuinguruan, hau da, unibertsitate eremuan, lehentasuna emanaz unibertsitate-komunitatearen osasunari eta segurtasunari.
- II. **2020-2021 ikasturtea aurrez aurreko prestakuntza egokitan garatzea**, urrutiko eta aurrez aurreko irakaskuntza-metodologiak erabiliz, ikaskuntzaren emaitzak lortzea eta titulazioetan formulatutako gaitasunak eskuratzea bermatzen dutenak, kalitate-estandar egiaztagarriekin.
- III. **2021-2022 ikasturtea planifikatzea, aurrez aurreko prestakuntza-eredu lehenetsiz eta digitalizazio prozesuak sendotuz**, urrutiko eta aurrez aurreko irakaskuntza-metodologiak baliatuz eta digitalizazio-tresnak txertatuz.
- IV. **Arreta berezia eskaintzea** egokitutako unibertsitate-prestakuntza behar bezala aprobetxatzeko **zailtasun erantsiak dituzten ikasleei**, izan egoera sozioekonomikoagatik, teknologikoagatik edo bestelako egoerengatik.
- V. **Euskal unibertsitate-eskaintza akademikoaren kalitatea bermatzea eta, oro har, indartzea**, arreta berezia jarritz, aurrez-aurre dituen erronak aintzat harturik, honako arlo hauetan: STEM eremuetan egiten den eskaintzan, irakasleen prestakuntzan, osasunaren esparruan eta euskal unibertsitate-prestakuntza dualean.
- VI. **Euskal Unibertsitate Sistema indartzea**, honako eremu hauetan: ebaluazio jarraituan eta irakaskuntza-metodologia aktiboetan, prestakuntzara eta ikerketara bideratutako digitalizazio aurreratuan, bai eta Euskal Unibertsitate Sistemaren egiaztapen instituzionala hedatzean ere.

- VII. **Nazioarteko elkarlan presentziala berreskuratzea eta bultzada progresiboa ematea**, bereziki Europan, irakasleena zein ikasleena, pertsonen segurtasuna izanik beti lehentasun.
- VIII. **Eskaintza akademikoan prestakuntza praktikoari bultzada ematea**, izan unibertsitate-prestakuntza dualean, izan ez-dualean, erakundeekin eta unibertsitateaz kanpoko eragileekin lankidetzat estuan arituz.
- IX. **2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren Planean adostutako konpromisoer arreta, bertan jasotako bost ardatzen bidez** –prestakuntza, bikaintasuneko ikerketa, unibertsitatea+enpresa, nazioartekotzea eta unibertsitate-komunitatea-, egungo eta etorkizuneko testuinguru sozioekonomikora egokitutako ikuspegitik.
- X. **Lankidetzan, elkarrekiko lanean eta erantzunkidetasunean oinarritutako unibertsitate-eredua sendotzea eta hobetzea**. Eredu horren helburua bikaintasunerantz aurrera egitea da, euskal gizartearen egungo eta etorkizuneko erronkei erantzunez.

Hezkuntza Sailaren, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateen eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren arteko lankidetzat estuak sendotasuna, egokitze gaitasuna eta erresilientzia erakutsi ditu bizitako larrialdi-egoeraren aurrean. Lankidetzarako eta akordiorako gaitasun bikaina egiaztatu da, elkarrekin ditugun erronkei aurre egiteko. Adierazpen honen bidez, gure konpromisoa berresten dugu gure misio hirukoitzean (hezkuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia) aurrera begira elkarlanean eta hobetzen jarraitzeko, gure lanaren jomuga den euskal gizartea hobetzen laguntzeko.

Jokin Bildarratz, Hezkuntza sailburua

Eva Ferreira, UPV/EHU-ko errektorea

José María Guibert, Deustu Unibertsitateko errektorea

Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko errektorea

Iñaki Heras, Unibasq Agentziaren zuzendaria

Vitoria-Gasteizen, 2021ko apirilaren 12an